

ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEAREN ERABAKIAK

BERTAN BEHERA UZTEKO ESKARIA (maiatzaren 23a)

Gaur hemen jakinarazten dugu, Landarlan Ingurumen Elkarteak mankomunitatera eskaera bidali duela, azkenaldian hartu dituen erabakiak, pista proiektu, aurrekontu, larreen ordenantza eta beste batzuk, bertan behera utz dizan, arrazoi hauengatik:

- Enirio-Aralar Mankomunitatearen apirileko bileran erakunde honetako idazkariak Landarlari erantzun zion bezala, mankomunitateko ordezkari politikoez ez dute eginga beraien ondasun eta jarduera ekonomikoen adierazpena, udaletan egiten den bezala.
- Dakigunez badira hainbat ordezkari abereak dituztenak Enirio-Aralarreko larreetan, Abaltzisketako ordezkaria, foru aldundiko teknikaria eta ganaduzalea, Amezketako ordezkaria eta artzaina, eta Altzagako ordezkaria eta senitartekoa ganaduzalea duena. Ordezkari hauek abstenitu ordez, legeak agintzen duen moduan interes pribatuak tarteko direnean, bozka eman dute, artzain eta ganaduzaleen onurarako diren hainbat erabakietan, pistak, larreen ordenantza, aurrekontuak eta abarretan, kasu batean izan ezik, apirileko bileran, Itsasondoko ordezkariak 2003ko Egitamua berrikusi eta eguneratzeko lanen kontratazioz, Amezketako ordezkaria abstenitu egin zen. Baina orain arte, inork ez die abstenitzeko eskatu, ez mahaiburuak, ez idazkariak, ezta beste kideek ere.

Horregatik gure elkarteak, Aralarko gaietan interesatua dena eta Natur Parkeko Patronatuan ordezkari dena, mankomunitateari adierazi dio legeak ematen dizkigun aukeren arabera, aipatutako kide horiei ezetza ematen diegula, beren interes pribatuen alde kasu gehienetan bozka eman dutelako.

Legeak dioenez, ordezkari politikoei ezetza ematearekin bakarrik gelditu daitezke prozedura administratiboak. Hori dela eta, mankomunitateari eskatu diogu urritik hona hartutako erabakiak bertan behera uzteko, ez delako interes publikoa interes pribatuen gainetik lehenetsi eta ez delako bermatu mankomunitatearen neutraltasuna ezta legedia betetzea ere. Mankomunitateak, herri erakundea izanik interes publikoa aurretik jarri beharrean dagoenez, gure eskaerak onartu beharko lituzke; ez onartzea legeen aurkakoa da eta jokabide arduragabea.

ZORIONAK MENDI ELKARTEEI, SINATUTAKO ADIERAZPENARENENGATIK

Landarlanez gain, hainbat herritarrok osatzen dugun Aralar Bizirik plataformak maiatzaren 18an Gipuzkoako Mendi Federazioko batzarrera bertaratu ziren hogeita zazpi mendi elkarteak, zoriontzen ditugu aho batez Aralarko pistei buruzko adierazpena onartu zutelako. Horren arabera, besteak beste, pista proiektu guztiak gelditzea, parte hartze prozesu baten eskakizuna eta azterketa zientifiko sakona eta sozioekonomikoa eskatu zizkieten Foru Aldundiari. Beraz, Zientzialariak, Mendizaleak eta Ingurumenaren babesaren alde dauden elkarteak jada Foru Aldundi eta Mankomunitatearen prozedurarekiko kontrakotasuna publiko egin dute. Garbi geratu da Foru Aldundia eta

Mankomunitateak Aralarren erabiltzaile batzuen mesedetan ari direla gainontzekoak alde batera utziz. Natur Parkea dela kontutan hartuta, iruditzen zaigu Foru Aldundiak eta Mankomunitateak hartzen dituzten erabakiak Naturaren mesedetan hartu beharko lituzketela eta herritarren parte hartzea eta gardentasuna bermatzea ezinbestekoa dela. Beraz beste behin Pista proiektu hauek bertan behera uztea eskatzen diegu Foru Aldundia eta Enirio Aralar Mankomunitateari.

Aralar Bizirik plataformak, otsailean mankomunitate eta Tolosako udaletan sartu zuen mozioa orain arte honako herrietan bozkatu eta onartu da: Ikaztegieta, Legorreta, Ordizia eta Zaldibia eta Lazkaon ez da onartu. Amezketan puntuz puntu bozkatu ondoren, hauek dira onartu ziren puntuak: mankomunitatea erakunde gardena eta irekia izatea eta Enirio-Aralarri buruzko gai garrantzitsuak Udal Batzetan eztabaidatzea. Tolosan eztabaidatu zen baina bozkatu gabe. Abaltzisketa, Altzaga, Arama, Ataun, Baliarrain, Beasain, Gaintza, Itsasondo eta Orendainen, oraindik ez da udal batzetan eztabaidatu.

Amaitzeko herritarrei, mozioa eztabaidatzen denean beren herriko udalbatzetan bertaratzea eta antolatuko diren hurrengo ekintzetan parte hartzera gonbidatzen ditugu, eta baita Aralar Natur Parkearen aldeko sinadura bilketan ere. 5000 lortzeko helburuz, dagoeneko 3800 lortu dugu baina gehiago behar dugu, Aralar Natur Parkearen aldeko deia handitzeko: Change+Aralar Bizirik.

Ordizia, Maiatza 2017

ARALAR BIZIRIK PLATAFORMA